

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza behin betiko onartzea

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena jendaurrean jartzeko epea igarota (5. Epigrafea, "Zaborrak eta hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzu publikoa"), eta aldaketa horren barruan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez (2024ko azaroaren 13ko ALHAO, 129 zk.), erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin betiko bihurtu den erabakia osorik argitaratzen da, argitaratzen denetik aurrera aplikatuz.

5. EPIGRAFEA. ZABORRAK ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN TASA

1. Gaia

Tasa honen gaia da zaborrak biltzeko zerbitzua, horien garraioa eta baimendutako hondakindegietan tratatzea. Hori guztia, bai udalak berak zerbitzua zuzenean kudeatu, bai Arabako Lautadako Kuadrillaren, udal enpresaren baten zein kontratistaren baten bitartez.

2. Tarifak

KUOTA	EURO/URTEAN
Konpostatze jarduerak egiten dituzten etxebizitzak	67,50
Konpostatze jarduerarik egiten ez dituzten etxebizitzak	90,00
Taberna denda eta antzekoak, nekazaritza eta landa turismoko etxeak	135,00
Aterpetxeak, hotelak, ostatuak, jatetxeak	750,00
Zerbitzuguneak	750,00
Bestelako establezimenduak	267,00

3. Aplikazio arauak

a) Izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa da etxeko zaborrak biltzeko zerbitzua.

b) Borondatezkoa da bildu, garraiatu, isuri eta deuseztatzea fabrika eta tailerren industria prozesuetan eta lanketan sortutako hondakin solidoak, obra eta eraispenetan pilotutako hondakin eta lurrak, eta ospitale, klinika eta osasun zentroyen detrituak.

c) Ordaindu beharra sortzen da zerbitzua ematearekin; izan ere, izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa izanik, ulertzen da erabili egiten dutela udalak zerbitzua antolatuta daukan eremuan dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titular eta/edo erabiltzaileek.

d) Izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen kuotak ezin dira ez hainbanatu ez murriztu, eta sortzen dira urte natural bakoitzaren lehenengo egunean, nahiz eta Udalak tasa hau hiru edo sei hilabete behin kobra dezakeen.

e) Konpostaje jarduerak (banakoak nahiz komunitarioak) eta hondakin guztien (papera, beira, plastikoa, olioak, materia organikoa...) behar bezalako bereizketa egiten badira, eta horrek berekin badakar materia organikoa edukiontzietara ez botatzea, etxebizitzetara 67,50 euroko tarifa aplikatuko zaie.

Konpostatze jardueren tarifa aplikatzeko, subjektu pasiboek eskaera formularioa aurkeztu beharko dute, hain zuzen ere etxebizitzetako hiri hondakin solidoen zerbitzuan konpostatze jardueren tasa aplikatzeari dagokiona.

Udaleko teknikariek ikuskatze bisita bat egingo dute etxean, eta konpostatze tarifa aplikatzearen aldeko txostena egingo dute hauek egiaztatzen badira:

– Hondakinen gaikako bilketa (papera, beira, ontziak eta sukaldeko olioak) behar bezala egiten dela.

– Etxeko konpostatzea egiten dela, hau da, materia organikoa etxean bertan tratatzen dela. Bermikonpostatzea egiten bada, egiaztatu egingo da bertan sartzen direla sukaldeko landare hondakin guztiak. Lorategiko konpostatzea egiten bada, egiaztatuko da lorategiko zein sukaldeko hondakinak jartzen direla. Bi kasuetan ikusi beharko da konpostatze prozesu osoa (hondakin freskoak, usteltzen ari diren hondakinak eta ustelduak), baita ere hainbat mikroorganismo daudela.

Tarifa hau eskuratzeko, eskaera ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

e) Izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen tasaren menpe dauden pertsonak behartuta daude Udal honetan aurkeztera alta, baja eta aldaketa aitortpenak, tasa zuzen aplikatzeko behar diren datuak emanez eta hilabeteko epean, tasaren menpeko etxebizitza, lokala edo establezimendua eskuratzen dutenetik, edo hari eragiten dion edozein aldaketa gertatzen denetik, Udalak onartutako eredia erabilita.

g) Tasa honetatik salbuetsita daude Donemiliagako Udalarenak diren higiezinak eta bertako administrazio batzarrenak, beren helburuak betetzeko erabiltzen badira.

h) Administrazio batzarren jabetzako etxebizitza edo negozio lokalen errentariak ez dira horretan sartzen.

h) Etxebizitzaren titulartasuna aldatzen bada, jabea behartuta dago Donemiliagako Udalarari jakinaraztera eroslearen identifikazio datuak, kontuan hartuta, edonola ere, jabeak izango du eroslearen ordezkotza.

j) Izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen kuotak ezin dira ez hainbanatu ez murriztu, eta sortzen dira urte natural bakoitzaren lehenengo egunean, nahiz eta Udalak tasa hau hiru edo sei hilabetean behin kobratzea.

4. Hobariak

1. Irizpide orokorrak:

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte eta eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Tasa honetako hobariaren onuradun izan ahal izateko beharrezkoa da eskatzailea egunean egotea udal honetik zerga betebeharretan.

Hobariak urtero eskatu behar dira, haren emakidan hainbat zergalditan berez berritzeko aukera jasota badago izan ezik, eta onura aitortzen den urtean indarrean den zerga ordenantza behin betiko onartzean emango dira.

Aurkeztu beharreko eskaera eredia emango zaie eskatzaileei, nahitaez aurkeztu beharko baitute eskatzen zaizkien agiriekin batera.

Toki administrazioak ofizioski egiaztatuko ditu behar diren datu guztiak, eta beste erakunde batzuei eskatuko die egiaztatzen laguntzeko.

Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasako hobari hau ohiko etxebizitzan aplikatuko da.

2. Definizioak:

Artikulu honetan ezarritako hobariak aplikatzearen ondorioetarako definizio hauek aplikatuko dira:

a) Errenta: familia unitatean jasotzen diren diru sarrera guztien batura da, pertsona fisikoen gaineko zergari lotuta ez daudenenak barne direla.

Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenurako urterokoen murrizketa, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gainekoak, 69. artikuluan jasotzen duena.

Horretarako, kontuan hartuko dira idatz zati honetan aipatzen den hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko urtearen aurrekoan lortutako errentak.

b) Familia unitatea: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

c) Familia unitateko kide guztiek lortzen duten errenta hartuko da kontuan.

d) Ohiko etxebizitza: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako halakotzat jotzen dena (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena; 61. artikulua).

3. Eskaera aurkezteko epea: Berariaz ezarrita ez dagoen kasuetan eskaera aurkezteko epea hobaria aplikatu behar den urteko martxoaren 31ra artekoa izango da.

4. Hobari kasuak:

Tasaren kuotan hobariak izateko eskubidea izango dute taulan agertzen diren baldintzak betetzen dituzten zergadunek, bertan agertzen diren ehunekoetan.

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	T-0	T-1	T-2	T-3
	ERRENTA <14.000 EURO	14.000 - 16.800 EURO	16.801 - 19.800 EURO	19.801 - 21.000 EURO
1-2	90%	75%	50%	35%
3	90%	90%	75%	50%
4	95%	90%	90%	75%
5	95%	90%	90%	90%
6	95%	90%	90%	90%
7	95%	90%	90%	90%

5. Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera, hobariaren gai den higiezina identifikatzen duena.
- Familiaren errolda ziurtagiria.
- Zerga aitortenaren fotokopia, familia unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gainekoarena (salbu eta subjektu pasiboa aitortena aurkeztera behartuta ez badago, zerga horren araudiaren arabera).

Erdoñanan, 2024ko abenduaren 19an

Alkatea
ERIKA LETAMENDI HURTADO